

Zein da oraiko ikasleen eskolatzeko moldatzen dugun euskara mota ?

1. Eskola, indar-gune bat euskararentzat

Eskolako hizkuntza eredia izanen da mintzaldi honen gaia. Eta hastapenetik argitu behar dut irakaslegaien formatzaile baten ikuspegitik mintzo naizela.

« Euskararen indar guneak » aipagai dira kolokio hontan eta, konzeptoaren inguratzeko, bi ideia nagusi errepikatu dira. Indargune bilakatzeko, toki batek (gertakari batek) hiztun komunitate bat erakarri behar du eta, bestaldetik, euskaraz bizitzeko parada eskaini behar du. Dударik gabe, eskolak bi baldintza horiek betetzen ditu

Eta azken urte hauetan, puntu baikor frango agertu dira ideia horren indartzeko.

- Partaide guzien artean, giro baikor bat zabaldu da euskararen inguruan, eskolatzeko tresna bezala.
- Egiazko indarra egiten da sare elebidunetan ariko diren irakaslegaien hastapeneko formakuntzari begira.
- Euskarazko euskarri pedagogikoen eskaintza gero eta aberatsagoa bilakatzen ari da.

Bainan, menturaz, puntu bat bada oraindik gure artean gehiago gogoetatu behar duguna : ikasleen eskolatzeko moldatzen ari garen hizkuntza eredia.

Berehala erran dezadan ez dudala eredu bat egina prest ekartzen ; irakaslegaien formatzaile bezala, gai hortaz gure eguneroko lanean erabiltzen ditugun galderekin heldu naiz, zuekin aipatzeko gisan. Eskolatzeko hizkuntza eredia eskolaren inguruan eta haren barnean ibiltzen diren partaide guzien artean eraikitzekoa da eta, epe luzeko esperientzia izanen da.

2. Euskara, eskolatzeko hizkuntza gisa :

Zer da jokoan dena euskararentzat, eskolaren barnean ?

- Eskolak transmisio mailako lan handiena betetzen du egungo egunean, familiaren segida hartu baitu hizkuntzaren iraskuntzaren aldetik.

- Gizarte mailan, eskolak adostasun bat sortzen du bere inguruan, euskararen transmisioari begira : 2018ko martxoaren 2an, hitzarmen nagusi bat izenpetua izan da euskarazko irakaskuntzaren garapena sustatu beharrez. Estadoa, Hezkunde nazionala, *Akitania berria* eskualdea, Euro-Eskualdea, Departamendua, EEP eta Unibertsitateak, denak partaide dira hitzarmen hortan. Hots, haurren eskolatzea euskaraz denen arteko helburu sozial eta politiko bilakatu da gaur egun.
- Azterketa zientifikoaren aldetik, euskararen erakasteko ereduak ikerketa gai eta ikerketa objektu bezala hartuak dira : orroitarazi behar da Euskal Herrian eremaiten ditugun esperientziak, elebitasuna eta elenaniztasunaren inguruan, partekatzen ditugula sare zientifiko zabal batean, Hegoaldeko lankideekin, bistan dena, baita ere Québec-eko, Suizako, Alemaniako edo Italiako ikerkideekin, besteak beste. Euskal Herrian sistema elebiduna oso zabaldua da ikasle kopuruen aldetik ; euskara hizkuntza guttitua da eta hedapen handiko hizkuntza batekin batera erakatsia da. Bi ezaugarri horiengatik, gure egoera guziz interesgarria da kanpoko ikerleentzat, datu eta zehaztasun asko eskaintzen baititugu azterketarako.
- Hezkuntza mailako helburua betetzen dute gure Sistema elebidunek : jakinez, ikerlanek erakusten dizkigutela hitzun elebidun goiztiarrek gaineratiko hizkuntzen ikasteko gaitasun bereziak badituztela, badugu hemen berean, hezkuntza mailako desafio handi bat : eleaniztasunari ideki behar ditugu hemengo belaunaldi berriak.

Funtsezko puntu gehiago bagenituzke aipatzeko, bainan oraiko lauekin geldituko gara. Zeren eta, puntu baikorrez gain, ñabardura batzu ekarri behar ditugu.

Alabainan, indar-gune izanik ere, denbora berean, eskolak bere **ahul guneak** baditu. Euskara eskola mailan bultzatzeko ez dira bakarrik haurrak eta burrasoak bultzatu behar. Irakaslegaiak ere erakarrri behar dira, eta dakizuen bezala, badu zeinbat urte, krisia une batean bizi garela Iparraldean, alde hortarik. Sistema

elebidunetan, irakasleak falta dira nombre handian, nahiz aurten (2018) hobekuntza ttipi bat izan den.

Eta ahul-gune horren eskasak nahi baditugu barnatu, ondoko gaiak behar ditugu aipatu. Lehen hiruak (irakaslegaien formakuntza, euskarri pedagogikoak, ikaslearen kurrikulama eta eskolako programak) azken urte hauetan gero eta gehiago landu dira partaideen artean. Laugarren pundua, euskara eskolatzeko hizkuntza gisa, ez da oraindik oinarrizko helburu bezala landua izan denen artean. Bakoitzak bere aldetik aztertua du, irakasleek beren klasean, euskarri pedagogikoen sortzaileek beren argitalpen berrietan, irakasleen laguntzeko ari diren aholkulari eta ikuskariek beren egitekoetan, ikerleek eta irakaslegaien formatzaileek irakaslegaien formakuntzetan. Bainan, momentoko, gaia ez da denen artean aztertua izan.

3. Euskara, eskolatzeko hizkuntza gisan :

a. Zer da eskolatzeko hizkuntza ?

Alde batetik, **eguneroko komunikazio tresna** da klasean eta klasetik kanpo, eskolaren eremuan. Bestaldetik, **Edukien pasa arazteko tresna da, transmizio tresna**, edukiak euskarari buruz eta beste diziplineri buruz. Gure eguneroko lanean, askotan erabiltzen dugun gaia da irakaslegaiak prestatzen ditugularik. Zein da landu behar dugun hizkuntza eredua ? Zer aholku eman behar diegu irakasle gazteeri gai horren inguruan ?

Funtsezko gaia da ere euskarri pedagogiko bat sortu behar delarik, esku liburu bat, mapa bat, aplikazio informatiko bat, etb. Garrantzi handiko gaia da ere, klasean ari diren irakasleentzat eta bereziki irakasten hasten direnentzat. Familientzat ere oinarrizko galdera da, etxeok ez baitakite beti zein hitz eta erran molde hobetsi behar duten seme-alaba edo iloba ttipiekin.

b. Zein dira gai horri buruz entzuten diren usaiako erantzunak ?

Eskolako profesionalekin mintzatzean eta hizkuntza eredua aipatzen delarik, anitzetan ondoko erantzuna adituko duzu : « euskara Batua erabili behar da ». Orduan, hari beretik segituz, galdetzen delarik, « zer erran nahi duzu, Hazparnen Donostian bezala mintzatu behar dela klasean ? », gehienek

ondoko erantzuna egiten dute : « Ez, *iparraldeko euskara batua* erabili behar da iparraldean ». Solasaldia segituz eta « erran nahia » poxi bat zehaztu ondoan, erran moldea horrela ulert daitekeela argitzen da : euskararen eredu bateratua, iparraldeko egoera linguistikoari egokitua. Eta jarraitzen baduzu erranez “Bai, orduan, emaidazu erreferentzia bat, liburu bat edo artikulua bat, eredu horren zehazteko eginga izan dena”, ez da erantzunik. Alabainan, ez baita ez libururik ez eta ere ikerketa zientifikorik egin izan denik gaiaren barnatzeko, mementoko segurik.

Horrek erran nahi du, iparraldeko irakasleen artean, bakoitza bere aldetik ari dela, ahal bezala, bere hizkuntza eredu finkatzen bere eguneroko lanean. Bistan dena, ikastetxearen mailan edo irakasleen artean, gogoetak egiten eta partekatzen dira (*Seaskan* adibidez, gehienetan, gaia lantzen da ikastola mailan). Denen lana da haren eraikitzea, nahiz hizkuntza mailako profesionalek erresponsabilitate berezia badugun : proposamenak egin behar ditugu. Hegoaldeko eta iparraldeko adituentzat baita ere euskararen erabiltzaileentzat, eredu bateratua helmuga bezala da, beti mugitzen ari den helmuga.

Gai konplikatua da biziki. Irakaslegaiari, Frantsesaren adibidea emaiten diet beti, ikus dezaten problematika zer den, gure kasu berezitik poxi bat urrunduz : mende bat eman dute eskolako frantsesaren eraikitzeke. Adibide bakar bat har dezagun : Ortografiarena. Mendez mendez, sekulako eztabaidak izan dira. Eztabaidak segitzen du aitzina eta polemika berpizten da hamar urte guzietz : azken episodioa, generoaren markaren inguruan gertatu da, guziz berriki. Batzuek diote idazkera sinplifikatu behar dela. Besteek aldiz, ez dela deus hunkitu behar, gaurko hizkuntza denen ondarea delakotz, arrasto historikoak eta gaineratikoak barne. Eta hori bakarrik ortografiarentzat : orroitu behar da bere garaian Flaubert gaitzietsia izan dela frantsesaren joskera sarraskitzen zuelako. Gaur egun, eredu gisa hartua da haren prosa.

c. Ezaugarri nagusiak eskolako hizkuntza eredu bati begira :

Gai hori lantzean, komunzki altxatzen diren gaiak zerrendan emanen ditut :

- **Ortografia** : erran nahi baita idazteko eta, haren arabera, ahozkatzeko molde bateratua.
- **Oinarrizko hiztegia**, adinaren arabera egina, eta **eskolako lexiko bereziak**, hots ikasgaien arabera erabiltzen direnak.
- **Oinarrizko gramatika**, ikasleen mailaren arabera egina, bere adibide eta testu korpusekin.
- **Testu hautatuak** : obra literario “kanonizatu”etarik ateratako korpua, den bezala utzia ? Arra-idatzia ? Hor, bistan dena, funtsezko aukera bat bada egiteko.
- **Ahozko korpua** : lehen, eskolatik kanpo atxikia zen korpua da ahozkoarena. Bainan gaur egun, guziz beharrezkoa da, MP3 eta bestelako formatuekin klasera aise erakartzen ahal dena.

Hara, zoin diren beste hizkuntzetan landu dituzten puntu nagusiak. Berritz ere diot, gurean ere, urrats asko eginak izan direla puntu horien lantzeko, bainan, begien bistakoa da bide frango badugula egiteko oraindik.

4. Elkarren artean lantzeko diren puntuak :

Orain, elkarren artean lantzeko diren puntuak aipatuko ditugu. Finka dezagun berehala abiapundua : helburua ez da baitezpada beste hizkuntzetan eta, batez ere, frantsesarentzat egin dena errepikatzea den bezala, erran nahi baita arautegi zehatz bat ezartzea denen gainetik, lege gisa. Helburua da euskara indartzea eta eskola “indargune” bilaka araztea, gurean ditugun berezitasunak eta ezberdintasunak begiratzuz eta barnatuz. Bainan, denbora berean, oinarri sendo batzuen inguruan antolatu behar genuke gure lana.

Gisa hortan, denentzat onargarriak daitezkeen zenbait puntu aipatzen ahal dira.

a. Euskara idatzia :

Eta lehena, dudarik gabe, **ortografia** da. Alde hortarik euskaraz, sekulako xantza badugu, «h» bat gutti gora behera, haurrek aise ikasten dute euskara idazten eta, bide batez, eskolako hizkuntza hori ahozkatzen.

b. Eskola mailako "Iparaldeko eredu bateratua" :

Bigarren pundua « **bateratze** » lana : sailaren arabera, hizkuntza eredu batzu agertzen hasiak dira. Menturaz, iparraldean aintzinatuen, « estandar mediatikoa » da. Euskal irratien hastapena ezagutu dutenek gogoan dute oraindik *Babel dorrea* zela irratia 80eko hamarkadan. Hogoitahamar urtez, gauzak azkarki aintzinatu dira eta, anitz jendek irratiena dute gogoan « iparraldeko euskara » aipatzen dutelarik. Eta, menturaz, kulturaren alorrean ere, « estandar » bertsua baliatzen dute.

Bainan, beste sailetan eta eskolan, batez ere, ez gara batere hein berean. Pundu baikorra, kezka hori badela, batez ere irakasle gazteen artean.

«Iparalde » hitza aipatzean, eremu geografiko bat ikusten dugu, Barkoxetik Hendaiara doana. Bainan, nork ikusten du garbiki eremu horren barnean, hizkuntza mailan pasatzen dena ? Zenbait elementu baditugu euskalkieri buruz, egoera soziolinguistikoari buruz, bainan, sintesia baten egitea oso zaila da, batez ere irakasle gazte bati aholkuak eman behar dizkiogularik.

c. Gelditzen diren zailtasun nagusiak :

Eskolako hizkuntza eredu horren bidean aurkitzen ditugun zailtasunak aipatu behar dira. Bakarrik biga izendatuko ditut. Lehen zailtasunak, dudarik gabe, euskalkieri buruz aurkituko ditugu. Ez dut batere erran nahi euskalkiena arazo bat denik. Dudarik gabe, xantza bat da guretzat. Bainan gai konplexua da kudeatzeko. Eta oinarritzko galderak heldu dira gogora berehala : Zer bilakatzen ari dira eskualkiak egungo egunean ? Beti bizi direa (gure ohizko «errepresentasioen » arabera, segurik) ? Zer dira xuxen : egiazko ondare bat, eskolak atxiki eta bizi arazi behar duena ? Bersortze bat, eskolak parte batean egin duena eta hemendik aitzina egin behar duena ? Hara, galde zailak dira, dudarik gabe. Bainan, eskolan eta eskolaren inguruan ari garen guziok behar genuke gai hori pentsatu, presa handikoa baita.

Eta beste gai batzu bagenituzke aipatzeko : besteak beste, zer egin korpus literarioekin ? Baztertu behar ote ditugu, dakarten hizkuntza eredu ez delako gehiago baliagarria, ez eta ere ikasle askorentzat ulergarria ? Atxikitzekotan eta pasa araztekotan, nola erabili behar ditugu eskolan ? Ondare gisa ? Zer atera behar da

haietarik ? Berridatzi behar dira argitaratu aitzin, beste hizkuntza anitzetan egin den bezala ? Holako galderak baditugu lantzeko.

d. **Egoeraren alde baikorrak :**

Eskolatzeko eredu horren bidean, bi alde baikor nabaritzen dira egungo egunean :

Irakaslegaien formakuntza egituratzen ari da eta hizkuntzaren gaia guziz lehentasunetan jarria da ; norberarentzat eta liburuez bestalde, autoformakuntza aplikazio informatikoak indartzen eta zabaltzen ari dira.

Irakaslegaien formakuntzaren aldetik, eskaintza handitu eta antolatu da azken urte hauetan. Lehen mailako irakaslegaiek « euskarazko modulo » bat segitzen ahal dute Akitaniako ESPE eskola berezitan proposatua den Masterrean (Master MEEF Premier degré, option « basque »). Gisa berean, bigarren mailarako, Baionako Fakultatean eta Bordeaux-Montaigne unibertsitateak antolaturik, CAPESa (Master MEEF Second degré) eta Agregazioaren prestakuntza eskainiak dira.

Hiru ardatz badituzte formakuntza horiek : zibilizazioa, literatura, hizkuntza. Hizkuntza sailean, estandarizazio linguistikoari buruzko gogoeta garrantzi handikoa da, eskolatzeko hizkuntza eredia batez ere.

Autoformakuntza tresnak eta plataforma informatiko berezituak indartzen eta hedatzen ari dira. Funtsezko tokia hartu dute gizartean oro har eta eskolan, molde berezi batez. *Nola Erran* hiztegi elektronikoa, nor-nahik erabiltzen ahal du, bistan dena. Bainan, irakasle gazteentzat, funtsezko tresna bilakatua da, baita ere ikasleentzat, klasean erabiltzen ahal baitute. IKAS paperezko dokumentuen argitarazaila gisa egiten duen lan paragabea ezagutua da bainan, erakasleek Web gunean eskuratzen ahal dituzten euskarri informatikoak gero eta gehiago baliatzen dituzte. Etorkizun handiko bidea da, dudarik gabe.

Eta bistan dena, beste eduki informatikoen sortzaileak aipatu behar dira autoformakuntzari begira : Bilketa, Euskal kultur Erakundea, Euskaltzaindia, Euskal erakuts tokia, Eusko ikaskuntza, Jean-Baptiste Orpustan-en web-gunea, IKERrena, baita ere beste elkarte guzikiak, hemen izendatzen ahal ez direnak bainan eskertu behar ditugunak.

Plataforma informatiko horietan eskuratzen diren edukien atzean ere, aldi oroz, hizkuntza ereduari buruzko gogoeta aurkitzen da, aukera eta egin molde zehatzak harekin batera, nahi ala ez. Web gunearen hizkuntza mailako koherentziak eta eduki sortzaileen arteko elkar lanak denak hortara erematen ditu.

Hara, hortan geldituko naiz. Hastapenean aipatu bezala, galdera frango aitzinatu ditut eta erantzun gutti ekarri. Eta hain zuzen hori zen ene helburua : erakutsi nahi nuen gogoeta kolektibo baten gaia dela “eskola mailako hizkuntza ereduarena”, partaide guzien artean egitekoa dena.

Oinarrizko bibliografia :

- *L'élaboration du français fondamental : étude sur l'établissement d'un vocabulaire et d'une grammaire de base* (1964), Gougeheim Georges (sous la direction de), Editions Didier.
- *Histoire de l'enseignement du français du XVIIe au XXe siècle* (2008), Chervel André, Editions Retz.
- *L'institution du français* (1985), Balibar Renée, Editions PUF.
- *Euskara batua* (2005), Zuazo Koldo, Editions Elkar.
- *Euskalkiak. Euskararen dialektoak* (2008), Zuazo Koldo, Editions Elkar.